



AGINDUA, JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILBURUARENA, ELKARREKIN
BONU-PROGRAMA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO
PROZEDURARI HASIERA EMATEN DIONA.

Bizikidetza demokratikoak eskatzen du euskal gizartea osatzen duten pertsona guztiek giza eskubideak aitortzea eta erabat baliatzea. Printzipio hori gizarte justu, inklusibo eta kohesionatu baten oinarria da; gizarte horretan, aniztasuna balio aberasgarritzat hartzen da, eta bizikidetza uztartzea da gizartearen adierazpen nagusia.

Giza eskubideek norberarentzat izan behar dute, pertsonekin eta pertsonengandik abiatuta, aldaketan eta eraldaketan parte hartzeko gai izango den herritartasun kritiko bat eraikitzea bilatuz, eskubideen osotasuna lortze aldera.

Horrela, jakintza sortzea eta transferitzea, eta herritarrek prestatzea, sentsibilizatzea eta ahalduzkoa dira aldaketa-palanka nagusietako bi, gizartea mundu bidezkoago, gizatiarrago eta jasangarriago baterantz eraldatzeko dinamikak egin ahal izateko.

Bestalde, erakunde- eta gizarte-interakzioak sustatzearen garrantzia aitortzen da, baita sentsibilizazio-tresna eraginkor gisa komunikabideak eta ikus-entzunezko baliabideak erabiltzearen garrantzia ere. Bide horiek aukera ematen dute bizikidetzaren eta giza eskubideen balioak herritarrengana hurbiltzeko, gizarte demokratiko aurreratu baten eraikuntzan aktiboki inplikatzeko erraztuz.

Elkarrekin Bonuak Programa da gizartea sentsibilizatzeko eta gizartean parte hartzeko helburu horri erantzuten dion ekimenetako bat. Helburua da irabazi-asmorik gabeko erakundeek, udalen, ikastetxeen eta hainbat gizarte-eragileren arteko interakzioak sustatzea eta bultzatzea, giza eskubideei, tokiko bizikidetzari eta herritarren parte-hartzeari buruzko ekimenak dinamizatzeko. Programa hori ekainaren 17ko 110/2014 Dekretuaren bidez arautzen da. Dekretu horrek programaren arau-esparrua eta esparru operatiboa ezartzen ditu.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak, 2023ko abenduaren 30ean indarrean jarri zenak, azken xedapenetako lehenengoan (Indarraldi mugagabea duten oinarri arautzaileak egokitzea), abenduaren 20ko 8/2024 Legearen azken xedapenetako bigarrenak aldatutako 1. puntuan, honako hau ezartzen du: «Indarraldi mugagabea duten laguntzen eta dirulaguntzen oinarri arautzaileak lege honetan xedatutakora egokitu beharko dira hogeita lau hilabeteko epean, legea indarrean jartzen denetik aurrera; epe hori igaro eta egokitzapena gauzatu ez bada, indargabetutzat joko dira».

Horregatik, Elkarrekin Bonuak Programa arautuko duen dekretu berri bat eman behar da, alde batetik, oinarri arautzaileak Dirulaguntzen Legera egokitzeko, eta, bestetik, programa kudeatzeko prozeduran hobekuntzak sartzeko, programaren aplikazio praktikoan hautemandako zailtasunak konpontzeko eta haren eraginkortasuna indartzeko, bakea, giza eskubideak, indarkeriarik eza eta printzipio demokratikoak sustatzeko tresna gisa.

Dekretu berrian sartutako aldaketen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: jarduerak emateko lekua mugatzea, eranskin normalizatuak sartzeko, dirulaguntza esleitzeko modua eta ordaintzeko modua arautzea, eta jarduketako ildoen artean

Orrialdea:1/9



funtsak transferitzeko aukera. Era berean, herritarren parte-hartzearen eremurako muga kuantitatiboen barruan ezarritako tarteak handitu dira.

Azkenik, 2024ko urriaren 30ean, Elkarrekin Bonuak Programaren dekretu-proiektuari dagokion hasierako agindua sinatu zuen Justizia eta Giza Eskubideen sailburuak. Hala ere, prozeduraren garapenean eragina izan duten ustekabeko hainbat inguruabarrengatik, agindu hori ondoriorik gabe geratu da. Ondorioz, hasteko agindu honek lehen aipatutakoa ordeztu du, arau-proiektuaren izapidetzeari berriro ekiteko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea egokitzen dela bermatzeko, bai eta programaren eraginkortasuna indartuko duten hobekuntza teknikoak eta prozedurazkoak sartzeko ere.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak (aurrerantzean, 6/2022 Legea) xedapen orokorrak egiteko prozedura zehazten du, eta, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak egiten dituzten xedapen orokorrei aplikatuko zaie.

Ondorio horietarako, arau-xedapen orokortzat hartzen dira, edozein gairen gainekoak izanik ere, lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen dutenak, eta ordenamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dituztenak, denbora-tarte jakin edo zehaztugabe batean hainbat egintzatarako oinarri gisa balio dutenak. Horregatik, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen (aurrerantzean, XOEPL) 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dira xedapen horiek, eta bertan adierazten den gutxieneko edukia izan beharko dute.

Ildo horretan, Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) Justizia eta Giza Eskubideen Sailari esleitzen dio giza eskubideak eta bizikidetzaren baliazko baldintzak sustatzeko eskumena. Beraz, Justizia eta Giza Eskubideen sailburua da prozedura honi hasiera emateko agintzeko eskumena duena.

Horregatik guztiagatik, XOEPLren 4. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, agindu honen bidez, Elkarrekin Bonuak programa arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematea xedatzen da.

Lehenengoa .- Dekretuaren xedea eta prozedura hasteko agindua emateko eskumena.

Dekretu-proiektu honen xedea da Elkarrekin Bonuak Programa arautzea, bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat sustatzera bideratutako proiektuak diruz laguntzeko. Ekimen horiek batera bultzatuko dituzte irabazi-asmorik gabeko erakundeek (erakunde onuradunak) eta funtsezko hiru eremurekin lotutako erakundeek: hezkuntza, udal-eremua eta herritarren parte-hartzea (erakunde hartzaileak).

Bonuak emanez gauzatuko da laguntza. Bonutzat hartuko da emandako ordu bakoitzeko ekarpen ekonomiko bat, erakunde onuradunek erakunde hartzaileentzat garatuko dituzten prestakuntza- edo dinamizazio-proiektuetan justifikatua. Proiektu horiek gai espezifikoak jorratuko dituzte, hala nola bakearen kultura, giza eskubideak, biktimekiko elkartasuna, indarkeriarik eza, printzipio demokratikoak, adiskidetzea edo gatazken konponketa.

Prozedura hasteko agindua emateko eskumena Justizia eta Giza Eskubideen sailburuarena da, XOEPLren 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena .- Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Sustatzen den dekretu-proiektuaren bidez, Elkarrekin Bonuak Programaren erregulazioa dirulaguntzen araubidea erregulatzen duen egungo araudira egokitu nahi da, eta, aldi berean, hobekuntza teknikoak eta prozedurazkoak sartu, programaren eraginkortasuna indartzeko.

Arau-proposamenak bideragarritasun juridikoa du, aplikatu beharreko lege-esparruarekin bat datorrelako, bai eta bideragarritasun materiala ere, benetan ezartzeko behar diren baliabideak eta baldintzak dituelako.

Hirugarrena .- Arau Planean sartzea.

Dekretu-proposamena Eusko Jaurlaritzaren 2025eko Urteko Araugintza Planean jasota dago, XOEPLren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Laugarrena .- Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak.

Arau-ekimena onartzeak ekainaren 17ko 110/2014 Dekretua, Elkarrekin Bonuak Programa arautzen duena, indargabetzea ekarriko du.

Bosgarrena .- Eragin ekonomikoa.

Dekretu-proiektuak eragin zuzena du aurrekontu-arloan, eta XOEPLren 15.5 artikuluan araututako memoria ekonomikoa eginez aztertu behar da.

Programa horrek hainbat dirulaguntza-lerro jasotzen ditu, eta horiek Justizia eta Giza Eskubideen Sailerako urtero onartzen diren aurrekontuetan islatuko dira. Urteko deialdiak egiteko (Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren zuzendariak kudeatuko ditu), ezinbestekoa izango da aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa izatea.

XOEPLren 15.5 artikulua honako hau ezartzen du: «Sailak, eragin ekonomikoaren intentsitatearen arabera, hala irizten dionean, memoria ekonomiko espezifiko bat ere egin ahal izango du. Memorian aipatuko da, eta, aldez aurretik onartu beharreko testuan izandako aldaketak ikusita, hasierako aginduan aurreikusitako kostuen zenbatespenaren balizko zehaztapenak edo desbideratzeak berretsi edo adieraziko ditu, bai eta hauek kuantifikatu ere: gastu eta diru-sarrerak, Administrazio Publikoaren aurrekontuetan izango duten eragina, finantzaketa-iturri eta -moduak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk».

Urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontrol ekonomiko-normatiboaren xedea izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko organo eskudunek emango dituzten eduki ekonomikoko lege-aurreproiektuak eta arauak ezartzeko proiektuak fiskalizatzea.

Seigarrena .- Egin beharreko izapideak eta txostenak.

Sustatzen den dekretu-proiektuaren testua idazteko, agindu honen edukia hartuko da kontuan, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak, bai eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko egokitzen diren kontsulten emaitzak ere.

XOEPLren 13.1 artikulua e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hasteko aginduan adieraziko dira proposatutako erregulazioaren gaia eta edukia kontuan hartuta egokitzen diren izapideak eta txostenak. Adierazitakoa kontuan

hartuta, jarraian zehazten dira hasiera batean aurreikusitako dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko behar diren izapideak eta txostenak.

Prozedura oro izapidetze elektronikorako «Tramitagune» aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpenaren arabera, zeinaren bidez xedatzen baita argitaratzea arau-xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarritzko eredia onartzen duen erabakia, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorritz.

Hasiera batean, izapide eta txosten hauek behar dira aurreikusitako dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko:

6.1.- Aurretiazko kontsulta

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, APAPEL) 133.1 artikulua, herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruzkoak, zehazten du kontsulta publiko bat bideratuko dela administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin aurretik, eta bertan jasoko dela zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek gai hauei buruz: (i) ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak; (ii) araua onartzeko beharra eta egokitasuna; (iii) arauaren helburuak; eta (iv) izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiak, zeinaren bidez onartzen baitira arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak, bereziki EAEko Administrazio Orokorraren esparruan sustatzen direnak, zehazten du zer jarduketa-protokolo jarraitu behar den APAPEL-en 133.1 artikuluan aurreikusitako herritarrentzako aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea betetzeko, XOEPL-en 11. artikuluan arautzen den prestaketa-fasearen barruan. Horretarako, bi jarduera hauek egin dira:

- Iragarki bat argitaratzea EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, herritarrei iritzia eman dezaten arau hori onartzeko beharraz eta egokitasunaz, arauaren helburuez, konpondu nahi diren arazoez eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileez.
- Aurreko informazioa Gobernu Irekiaren plataformara eramatea – Irekia –. Bertan, herritarrek Administrazioaren jarduketan berri izan dezakete eta iritziak eman ditzakete modu erraz, ireki eta informalean, proposatutako ekimenei buruzko eztabaida publikoa erraztuz.

Abuztuaren 20ra arte irekita egon zen aldi horretan, ohar bakarra jaso zen, emateko prozedurari buruzkoa. Bertan gomendatzen zen epe espezifiko bat ezartzea eskabideak aurkezteko eta proiektu guztiak baloratzeko epe hori amaitutakoan.

2024ko uztailaren 26an, aurretiazko kontsulta argitaratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, bai eta Gobernu Irekiaren Irekia plataforman ere.

6.2.- Hasteko agindua argitaratzea

XOEPL-en 13.2 artikulua, arabera, prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legegunean argitaratuko da. Argitalpen hori automatikoki jakinaraziko

zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharra egin ditzaten.

6.3.- Testua idaztea

Dekretu-proiektuaren testua idazteko, agindu honen edukia hartuko da kontuan, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak, bai eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren kontsulten emaitzak ere.

Testuan sartu beharko da dekretu-proiektua zehaztea justifikatzen duten arrazoi eta oinarri juridikoen azalpen egokia, XOEPLren 14.2 artikuluan eta Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiaren lehen apartatuaren 1. puntuan ezartzen den bezala (erabaki horren bidez, arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dira).

Era berean, testua idazteko, kontuan hartuko da lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen dituen 2023ko uztailaren 11ko Erabakian xedatutakoa. Erabaki hori Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren uztailaren 28ko 78/2023 Ebazpenaren bidez argitaratu zen (abuztuaren 7ko EHAA, 149. zk.).

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 5. artikuluan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 14.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, testua bi hizkuntzetan idatzi behar da, araua idazteko prozesu osoan bi hizkuntzen berdintasuna bermatuz. Horregatik, testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, alde aurretik onartu eta instrukzio-fasean izapidetu aurretik.

Horretarako, XOEPLren 27.3 artikulua bete behar da, behin betiko onartu behar diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, bai eta lege-testu beraren 14. artikulua ere, zeinaren arabera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak emandako ziurtagiria izan beharko baitu argitaratzeko bidalitako dokumentuak.

6.4.- Aldez aurreko onarpen-agindua

Dekretu-proiektua idatzi ondoren, eta dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuari aurkeztuko zaio, onar dezan, XOEPLren 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldez aurreko onarpena duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, XOEPLren 16.3 eta 17.3 artikuluetan aurreikusitakoa betez. Argitalpen honen data aldibereko bultzada onartzen duten izapide guztiak betetzeko epearen hasiera izango da, baldin eta izapide horiek nahitaez bete beharrekoak ez badira.

Halaber, aldez aurreko onarpenaren agindua eta arau-proiektua Legegunea lankidetzagunean jakinaraziko dira.

6.5.- Generoaren arabeko eraginari buruzko txostena

XOEPLren 14.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren arabeko eraginari buruzko txosten bat egin beharko da, eta Emakunderen esku jarriko da, legerian jasotakoa hobetu ahal izateko.

Txosten honen beharra bat dator Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu

bateginaren 20. artikuluan ezarritakoarekin (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori). Plana egiteko, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez (2012ko irailaren 25eko EHAA n argitaratua, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren bidez) onartutako jarraibideak beteko dira, genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzkoak.

6.6.- Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria

XOEPLren 15.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen organoak arau-eraginaren azterketari buruzko memoria bat egingo du, nahitaez, xedapen horretan aurreikusitako moduan eta edukiarekin.

6.7.- Txosten juridikoa

XOEPLren 15.4 artikulua honako hau ezartzen du: «Dagokion sailak komenigarritzat jotzen badu, espedientearen edukia eta azterketa juridikoa txosten juridiko espezifiko baten bidez bideratu ahal izango dira. Txosten hori memorian aipatuko da, eta prozedura bideratu duen saileko zerbitzu juridikoak emango du. Txosten horren xedea izango da, ondoren izapidetzeko, proiektuaren oinarrien defentsa juridikoari eustea, haren edukia legera eta zuzenbidera egokitzea eta, hala badagokio, ezartzen diren araugintza-teknikaren jarraibideak betetzea».

Ondorio horietarako, adierazten da beharrezkotzat jotzen dela Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoak txosten juridiko bat egitea, XOEPLren 15.4 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

6.8.- Entzunaldia eta jendaurreko informazioa

XOEPLren 16. artikulua arabera, eta sinplifikazio administratiboaren printzipioa aplikatuz, batera eta egintza bakar batean bideratuko dira izaeragatik aldi berean bultzatzen diren izapideak.

Illo horretan, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak egingo dira, XOEPLren 17. artikulua aplikatuz, eta XOEPLri horren berri emango zaio, jarraian adierazten den moduan.

Entzunaldia eta, hala badagokio, informazio publikoa, 6.9 eta 6.10 puntuetan aurreikusitako gainerako izapideekin batera egingo da, hilabeteko epean, aldeztu aurreko onarpena duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Aipatutako 17. artikulua 2. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz, entzunaldi-izapidea zuzenean edo legeak aitortutako eta ukitutako herritarrak biltzen edo ordezkatzeko dituzten erakunde eta elkarten bidez egingo da, baldin eta haien helburuek lotura zuzena badute xedapenaren xedearekin.

Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideari dagokionez, jarduketa hauek egingo dira:

- 1) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratuko da dekretu-proiektua jendaurrean jartzeko ebazpena. Ebazpen horrek esteka bat izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, eta bertan eskuragarri egongo da dekretu-proiektuaren testua,

interesdunek egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ahal izan ditzaten 20 egun balioduneko epean, ebazpena EHAA-n argitaratzen denetik aurrera.

2) Ebazpen bera, dekretu-proiektuaren estekarekin batera, Irekian argitaratuta egongo da.

6.9.- Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazioek parte hartzea eta haiei kontsulta egitea

Xedapenaren testuaren alde aurreko onarpena argitaratzen denetik hilabeteko epe komun berean, eta XOEPLren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreikusitako erregulazioak zuzenean eragin diezaiekeen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei parte hartzeko aukera emango zaie.

6.10.- Funtsezkoak ez diren txostenak eta irizpenak

XOEPLren 16. artikuluan arabera, funtsezkoak ez diren txosten hauek eskatuko dira, eta guztiak aldi berean eta hilabeteko epe berean egingo dira.

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, honako hauek ezarritakoaren arabera: Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 14.2k) artikulua, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikulua, eta xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 2. artikulua.

6.11.- Nahitaezko eta funtsezko txostenak

Azkenik, XOEPLren 20., 22. eta 23. artikuluetan xedatutakoaren arabera, nahitaezko eta funtsezko txosten hauek eskatuko dira:

- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren legezotasun-kontrolako txostena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

6.12. – Azken espedientea eta memoria.

Espedienteari erantsiko zaizkio, hasteko agindu honekin eta dagokion dokumentazio guztiarekin batera, egindako azterlanak eta kontsultak, prozedura osoaren memoria laburra eta memoria ekonomikoa, XOEPLren 24. artikuluan adierazitako edukiarekin.

Dekretu-proiektua Gobernu Kontseiluak onartu beharko du, XOEPLren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.13. – Gardentasuna.

Dekretua egiteko prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazioa Legegunea euskal araudiaren atarian argitaratu beharko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

6.14.- Europar Batasunaren aurreko izapideak

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 6/05 Zirkularrak, 2005eko abenduaren 15ekoak, EAEko sail eta erakunde autonomoen dirulaguntzen programa eta/edo deialdiei dagozkien Europar Batasunaren aurrean egin beharreko izapideen kontrolari buruzkoak, honako hau ezartzen du lehenengo atalean: «Dirulaguntzen programa edo deialdiei dagozkien espedienteek, Bulego honetara ekonomia- eta araudi-kontrolerako bidaltzen badira, modu arrazoituan azaldu beharko dute espedienteak Europar Batasunaren aurrean izapideren bat egin behar duen eta izapideak zein egoeratan dauden, ordura arte egindako jardueren justifikazio-dokumentazioa barne. Espedienteak Europar Batasunaren aurreko izapiderik behar ez badu, behar bezala arrazoitu beharko da arrazoiak».

Horri dagokionez, adierazi behar da ez dela inolako laguntzarik jasotzen Europar Batasunetik xede horretarako, eta ez dela aurreikusten Europako Gizarte Funtzak kofinantzatzeko aukerarik.

Era berean, adierazten da proiektatutako xedapenaren esparruan dirulaguntzak ematea ez dagoela Europako Batzordeari jakinarazteko betebeharraren mende, laguntza horiek ez daudelako estatu-laguntzen kontzeptuaren barruan, Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaren 87.1 artikulua definitzen dituen zentzuan.

Aurreko guztiagatik, ez da ikusten Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egin behar denik dekretu-proiektuaren aplikazio-eremua eta xedea eta helburua kontuan hartuta.

Aipatutako lege-manuak eta oro har zein bereziki aplikatu beharreko beste xedapen batzuk ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Elkarrekin Bonuak Programa arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera emateko agintzea.

Bigarrena.- Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren zuzendaritza izendatzea lehen aipatutako prozedura izapidetzeko eta dagokion prozedura bideratzeko eta izapidetzeko organo.

Hirugarrena.- Agindu honen berri ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, XOEPLren 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laugarrena.- Aplikatzekoa den araudian aurreikusitako azterlanak eta kontsultak egitea, eta araua egiteko beharrezkoak diren txostenak biltzea, haren egokitasuna, legezkotasuna eta helburuak ahalik eta ondoen lortzea bermatuz.

Bosgarrena.- Xedapen orokorrak izapidetzeko eredia eta Tramitagune aplikazio informatikoa erabiltzea, bat etorritz Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpenarekin, zeinaren bidez xedatzen baita argitaratzea arau-xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarritzko eredia onartzen duen erabakia, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorritz.

Seigarrena.- Prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia aktiboki argitaratzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren eguna.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ